

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK
HISTORIA AZTERKETA
2008-2009 IKASTURTEA

JARRAIBIDEAK: Ikasleak proposatzen diren A eta B aukeretako baten galdera guztiak erantzun behar ditu. Galdera bakoitzean adierazten da gehienezko puntuazioa zein den.


A aukera

1. zatia: DEFINITU TERMINO HAUEK (Gehienez: 3 puntu)

a) *Atapuerca*; b) *Navas de Tolosa*; c) *Cisneros kardinala*; d) *XVII. mendeko krisi demografikoa*; e) *Planta Berriko Dekretuak*.

2. zatia: GRAFIKOA: Nafarroako hauteskunderen emaitzak 1933an

1933ko Hauteskunde Orokorrak



ITURRIA: GRAN ENCICLOPEDIA DE NAVARRA, 1990

GALDERAK (Gehienez: 3,5 puntu)

- Grafikoaren deskribapena (Gehienez: puntu 1)
- Grafikoaren azterketa edo interpretazioa (Gehienez: 2,5 puntu)

3. zatia: SINTESIA (Gehienez: 3,5 puntu)

Erregenerazionismoa eta errebisionismo politikoa Alfonso XIII.aren erregealdian.

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK
HISTORIA AZTERKETA
2008-2009 IKASTURTEA

JARRAIBIDEAK: Ikasleak proposatzen diren A eta B aukeretako baten galdera guztiak erantzun behar ditu. Galdera bakoitzean adierazten da gehienezko puntuazioa zein den.

B aukera

1. zatia: DEFINITU TERMINO HAUEK (Gehienez: 3 puntu)

a) *Andelos*; b) *Santiagoko bidea*; c) *Juduen kanporaketa*; d) *Enkomiendak*; e) *Despotismo ilustratua*

2. zatia: TESTU HISTORIKOA: *Armadaren Cadizeko aldarrikapena 1820an*

Armadaren Cadizeko aldarrikapena 1820an

“Armada nazionalak, Espainiako Monarkiaren Konstituzioaren alde egitean, Cadizen bere legezko ordezkariak aldarrikatu baitzuten, ez ditu inola ere eraso nahi konstituzioak aitortzen dituen legezko monarkaren eskubideak: baina sinetsita dagoenez bere Gobernuaren ekintza guztiak, halako ezbehar deitoragarri eta ulertezinagatik, lagundu besterik ez dutela egin konstituzioa onesteko hainbeste sakrifizio egin zituen Naziora zorigaitza ekartzen, uste du aldarrikapen honek bakarrik salbatzen ahal duela, bai bera, bai bere Printzea ere, ezgaitasun egoeratik. Armadak ez ditu pertsonen jabetzak eraso nahi, ezta gure gurasoen zuzentasunak, justiziak eta erlijioak zilegitzen dituzten berrikuntzak egin nahi ere; ez da sedizio asmoa; ez ditu eragiletzat beroaldi laburreko mugimenduak; patriotismo garbienak, bere herrialdearen zorionaren aldeko nahi sutsuenak, eginarazi diote zin serioena azkeneko odol tanta ere isurtzeko, nahi horiek asetzeagatik...”

Espainiako herria, eskura duzu berari segitzea, eskura duzu joandako aintzak berreskuratzea, edo desohorearen amildegian betiko hondoratzea. Alternatiba ez da zalantzazkoa; eta Europa osoak, hainbeste begiratzen dizun horrek, ez du itxaropenik galduko orain dela sei urte bere loaditik atera eta bere etorkizuna erabaki zuen Nazioarengan.”

Memorias de D. Antonio Alcalá Galiano, Obras escogidas liburuan, Madril, 1955.

GALDERAK (Gehienez: 3,5 puntu)

- a) Kokatu testua bere testuinguru historikoan (Gehienez: puntu 1)
- b) Esan zer arrazoiengatik egin zuen bere aldarrikapena Riego liberalak 1820an (Gehienez: 2,5 puntu)

3. zatia: SINTESIA (Gehienez: 3,5 puntu)

Frankismoaren aurkako oposizioa.